

# STEE-EILAS-EK PROPOSATZEN DUEN HEZKUNTZA SISTEMA



1.

## GURE GIZARTEAK BERE HEZKUNTZA SISTEMA DISEINATZEKO ESKUBIDEA DU.

Gure biztanleen behar zehatzak aseko dituen hezkuntza sistema eta alor honetan eskuduntza eskusiboak izango dituen kanpoko inposizioirik gabe. Gainera, gure ingurune hurbilean dauden beste hezkuntza sistemekin beharrezko koordinazioaz harantzago joango dena izango da. Horrela bada, Euskal Herriak bere kultura eta euskara babesteko eskubidea du eta, era berean, bertako biztanleen eta herrialdeen aniztasuna bermatuko du.

2.

## ESKOLA SARE PUBLIKOAK IZAN BEHAR DU EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMAREN ERDIGUNE.

Eskola sare publikoa euskal hezkuntza sistemaren erdigune izanda, honakoak behar den bezala bermatzeko aukera izango dugu: gizarte kohesioa, biztanle guztiek aukera berak izatea eta genero, arraza, hizkuntza, kultura, maila ekonomiko edo ezgaitze fisiko edo psikikoa dela-eta sortutako aldeak berdintzea.



Zerbitzu publikoak gero eta gehiago pribatizatzen ari dira, baita hezkuntza sisteman ere, eta pribatizatzeke joera hori, modua edozein delarik ere, ezinbestean aldatu beharra daukagu; izan ere, benetako hezkuntzaren errentagarritasun sozialaren kontrakoa da gaur egungo politika neoliberalak eta merkatu librearen irizpideak ezartzea.

Beraz, Finantziario Plan egoki batekin lagundutako Euskal Eskola Publikoa Sustatzeko Plan Estrategiakoan jaso behar ko lirareke ondorengo ardatz nagusiak: alde batetik, hezkuntzaren eskaintza planifikatzea (eskola mailako hitzarmenak, eskola-mapen politika, eskola pribatuekin adostasun politikak, ibilbideak eta eskola-mapak diseinatzea, ikasleak onartzeko prozesuak...); bestetik, dauden eskola publikoen instalazioak egokitzea eta beste berri batzuk eraikitzea.



3.

## GURE HEZKUNTZA SISTEMAN, EUSKARA ETA HIZKUNTZA ANIZTASUNA FUNTSEZKO BI ARDATZ IZAN BEHAR DIRA,

eta, beraz, Iparraldean eta Nafarroako leku batzuetan euskarak pairatzen duen ofizialtasun eza behingoz gainditu behar da, baita hezkuntzako zenbait mailatan euskaraz ikasteko eskubide zapaldua ere (Lanbide-Heziketa eta unibertsitateak). Azkenik, gaur egungo hizkuntza ereduak sortzen duen ikasle bakoitza ere gainditzeke daukagu; gainera, ezin dugu ahaztu sistema horrek dituen hizkuntza helburuetan porrotaren portzentajea oso altua dela.

Beraz, legalki beharrezkoak diren aldaketa guztiak egin behar dira eta ikastetxeei beharrezkoak diren baliabide guztiak eskaini behar zaizkie euskara benetan eta eraginkortasunez normalizatzeke leku, maila eta egoera guztietan. Ondorioz, ikastetxe guztietako eta hezkuntza maila guztietako langileak elebidunak izan beharko dira ahalik eta azkarren. Hori guztia hizkuntza aniztasunean eta hizkuntzen lanketa bateratuan oinarrituta lortu beharko litzateke.

#### 4. ANIZTASUNA BAITAN HARTUKO DUEN HEZKUNTZA SISTEMA.

Aniztasuna gero eta handiagoa baita gure gizartean eta dagoeneko badagoen giza aniztasunera batzen baita. Erronka honi aurre egiteko beharrezkoak diren giza baliabide eta baliabide material guztiak eskaini beharko dizkio hezkuntza administrazioak ikastetxeari, hezkuntza komunitate bakoitzaren behar zehatzak zeintzuk diren kontuan izanda.



Ikasle guztiek, jatorria edo bestelako ezaugarri pertsonal edo sozialak edozein izanda ere, aukera berak izango dituzte helburuak lortzeko bai hezkuntza eskaintza arruntean, bai ekintza edo zerbitzu osagarrietan. Eta ikastetxe guztietan, publiko zein pribatuetan, jorratu beharko dute aniztasun hau beraien hezkuntza proiektuetako oinarritzko ardatz gisa.



5. GURE HEZKUNTZA SISTEMA LAIKOA IZAN BEHAR DA. Erlijioa giza-ki eta familiaren baitan gelditu behar da eta, beraz, curriculumetik eta eskola ordutegitik kanpo. Gizarte demokratiko, multikultural eta anitz baten, formazio erlijiosoak ez du lekurik; bestalde, lekua egiteak, eskola doktrinamendu gune gisa onartzea esan nahi du. Hori onartezina izateaz gain, bidegabekeria politiko eta soziala ere bada, izan ere, funts publikoak giza sinesmenaren mailan dauden jarduerak ordaintzeko desbideratzea izango bailitzateke. Horregatik, guztiz arbuiazen dugu Estatuko Lege Organikoan eta gainontzeko Dekretuetan erlijioa jorratzeko agertzen den modua, hierarkia katolikoari amore ematen baitio.

#### 6. GURE HEZKUNTZA SISTEMAK BERDINTASUNA, HEZKIDETZA, KOMPENTSAZIOA ETA ELKARTASUNA IZAN BEHAR DITU OINARRIAN, ETA BETI ERE GIZARTEAREN ZERBITZURA EGON BEHAR DA.

Hezkuntza sistema osoa antolatzeko hatsarre nagusiak izan behar dira horiek, beraien eskaintza planifikatzeko eta finantziazio publikoa jasotzen duten ikastetxe guztien funtzionamendurako. Eta gobernu politika edozein delarik ere, lehentasunezkoa izan behar da eta, merkatu edo irizpide ekonomikoez gaindi, modu eraginkor eta orokorrean horiek lortzeko baliabide nahikoa bermatu behar ditu.



7. GEURE CURRICULUMA gure gizarteak bere hezkuntza sistema diseinatzeko eskubidea du baita dituen ezaugarri linguistiko, historiko eta kulturalen transmisioa bermatzeko ere, nahiz eta momentu honetan murgilduta gauden testuinguru soziopolitiko historiko kulturala ere ezin daitekeen ahaztu. Euskal Herriarentzako curriculum hezkuntza komunitateko eragileen arteko eztabaida zabal eta parte hartzaile baten emaitza izan beharko da.




**8. HEZKUNTZA SISTEMA INTEGRALA** izan beharko da eta eskaintza publikoa nahikoa izatea eta bizitzan zeharreko ikasketa izatea bermatu beharko du. Modu horretan egin ahal izango zaio aurre maila guztietan, leku guztietan eta adin guztietan gizarteak dituen hezkuntza eskariari, derrigorrezkoak izan edo ez. Gainera, hezkuntza administrazioak ezin izango du inondik inora ardura hau besteen gain utzi, ezta hezkuntza zerbitzurik azpikontratatu ere.

Gizakiak garapen pertsonal eta sozial osoa izateko prozesu gisa ulertu behar dugu hezkuntza, baita balore pertsonal eta sozialetan formazioa emateko ere. Honez gain, konpetentziak eskuratzeko tresna gisa ere ikus dezakegu, baina enpresen zerbitzura, lan merkatura edo “enplegarritasunera” inoiz mugatu gabe.



**9. ESKOLA AUTONOMO SAREEN BITARTEZ LOTUTAKO HEZKUNTZA SISTEMA.**

Beharrezkoa da ikastetxeek antolatzeke eta ekintza pedagogikoak egiteko autonomia izatea, bizi duten egoera zehaztutara egokitzeko eta esku artean daukaten heziketa-proiektua behar den bezala garatzeko. Guztiok gutxieneko oinarriak betez gero, autonomia hau ikastetxearen baitan modu globalean atxikituta egon behar dela ulertu behar da, hau da, hezkuntza komunitatean bere osotasunean, eta ez bertako partikular edo eragileengan. Hezkuntza administrazioa ere bertan sartu beharko litzateke, ikastetxearen heziketa-proiektuak onartu eta beharrezkoa den ebaluazioa aurreikusitako ondoren, horiek guztiak gauzatzeko beharrezkoak diren giza baliabide eta baliabide materialak eman beharko dizkie.



**10. GURE HEZKUNTZA SISTEMAK FINANTZIAZIO SISTEMA EGOKI ETA JUSTUA BEHAR DU,** eta ikastetxeek euren lana kalitate bermez gauzatzeko giza bitarteko eta bitarteko material guztiak izan behar dituzte. Gainera, gizarteak

hezkuntza alorrean dituen behar sozialak asetzeko sistema publikoa izan beharko litzateke. Hezkuntza publikoari dagozkion aurrekontuak ikastetxeen eta euren zerbitzura dagoen gizartearen benetako beharrak asetzeko izan behar dira eta aurrekontu horiek egiteko irizpideak errentagarritasun soziala eta kulturala izan behar dira, eta ez irizpide ekonomiko soilak.

Horretarako, ezinbestekoa da hezkuntzari egokitutako aurrekontu-saila handitzea, eta azken urteotan egon den txikitzeke joera aldatzea. Gure BPGaren %6ra hurbildu beharko litzateke apurka-apurka eta ikastetxe publikoek beste gaineratik lehentasuna eman beharko litzaieke. Finantziario horrek hezkuntza zerbitzu osagarriak ere bere baitan hartu behar ditu, eta ez dira inondik inora azpikontratatu.



11.

### KALITATEZKO HEZKUNTZA SISTEMA IKASLE GUZTIENTZAT.

Kalitatea hezkuntza irizpideen baitan ulertu behar da eta inoiz ez kudeaketa alorrean mugatuta. Ikastetxeetako benetako kalitatea honako irizpideen arabera neurtu behar da, besteak beste: ikasleen behar anitzen erantzun egokiak, ingurune eskakizunak eta heziketa-proiektuko helburuen lortze maila, hau da, errentagarritasun sozialaren arabera eta ez enpresa errentagarritasunaren arabera. Badakigu zenbait saiakera neoliberal daudela eskola ahalik eta domina gehien lortzeko lehiketa desorekatu batean baitan kokatzeko, ahalik eta goren kokatzeko raking zentzugabeen. Baina eskola ezin da neurtu galdera eta irabazien kontuaren arabera, izan ere, eskola ez da “enpresa” eta ikasleak eta euren familiak ez dira eskolaren “bezeroak”.

Gainera, irakasleen formazioa eta ikastetxeetako baliabide eta hezkuntza eskaintza berariaz diseinatu behar dira. Etengabeko formazioa eta hezkuntza berritzea hezkuntza zerbitzu publikoari exijitu beharreko kalitatearen oinarriak izan behar dira, etengabeki aldatzen ari diren behar sozial eta kulturaletara egoki moldatu ahal izateko.



12.

### PARTE HARTZEAN ETA DEMOKRAZIAN OINARRITUTAKO GESTIOA DUEN HEZKUNTZA SISTEMA.

Bai ikastetxeetan baita sistema orokorrean ere, planifikazioan, baliabideak ematean, kontrolean eta ebaluazioan, parte hartzean eta demokrazian oinarritzea ezinbestekoa da. Hezkuntza komunitateak ikastetxeen gobernuan parte hartze zuzena izan behar du, eta enpresa eredu hierarkikoak edo korporatiboak alde batera utzi behar ditu. Beharrezkoak diren arauak hartu behar dira parte hartzea eta kudeaketa demokratikoa bermatzeko. Printzipio horiek oinarritzekoak dira eta Euskal Eskola Publikoaren ezaugarri izan dira tradizionalki; beraz, gaur egun dagoeneko badauden ikastetxeetako eta bilguneetako Eskola-Kontseiluak bezalako erakunde autonomikoak indartu beharko genituzke.

Bestalde, irakasleek ikastetxeetako zuzendaritzan eta kudeaketan parte hartzea errazteko, zuzendaritza taldeak beharrezkoak diren laguntzak izan behar ditu, baita egokitutako formazio planak ere. Bukatzeko, administrazioak ikastetxeak kudeatzeko gaur egun daukan eredu burokratikoak aldatu behar duela uste dugu.



13.

### IKASTETXEETAKO PROFESIONALEN ERREKONOZIMENDUA ETA DUINTZEA.

Hezkuntza alorrean arrakastatsua den ezer gutxi egin daiteke irakasleek proiektuetan parte hartze aktiboa izan gabe, beraien laguntza gabe eta beraien eginkizunak behar den bezala kontuan hartu gabe. Beharrezkoa da, beraz, hezkuntza administrazioak konpromiso garbia hartzea irakasleen eta hezkuntza sistemako langileen lan baldintzak hobetzeko.

Administrazioak, era berean, ikastetxeetako profesionalak defendatu egin behar ditu ospe txarreko kanpainen aurrean, oinarririk gabeko salaketen aurrean edo eraso fisiko edo psikologikoen kariaz sortutako egoera babesgabeen aurrean.